

HUTS
Zuzendaria
Aktoreak

TEATROAK
ANDER

AMANCAY
LIPUS

AURKEZTEN
eta
LAURA

DU
GAZTAÑAGA
PENAGOS



ATZERRIAN

LURRA GARRATZ



AURKIBIDEA

Kantu herrikoia / Doinua // 03

Zergatia / Ilusioa // 04

Abiapuntuak / Bulkadak // 05

Sinopsia / Bi hitz // 06

Argazkiak / Begiradak // 07

Trama / Gaia / Bidea // 12

Gai ardatzak / Auroraren gela // 14

Dramaturgia / Hariak / Amarauna // 17

Argazkiak II / Begiradak II // 18

Lan taldea / Arnasak // 20

Egutegia / Pausu bakoitza // 21

Kontaktua / Harremanak // 23

KANTU HERRIKOIA / DOINUA

*Clavelito, clavelito,
envuelto en un papelito
Corazón de piedra dura
como ese manantialito.
Ya me voy ya me voy
ya me voy yendo,
sabe dios si volveré
a la tierra donde nací.*

Abesti herrikoia

ZERGATIA / ILUSIOA

Proiektu berri bat abiatzeak, emozioa, errespetua eta beldurra eragin ohi ditu; baina bereziki, berezi-bereziki ilusioa.

Artedraman, ez dugu erakusketara mugatzen den antzerkian sinesten. Antzerkia, erritual hori, gu baino handiago da, sakratua. Egiten dugunak, gure komunitateari hitz egiten dio, galderak pausatzen; garenaz, bizi dugunaz eta gure buruarekiko eta inguratzen gaituen munduarekiko dugun begiradaz. Horregatik beti lan egiten dugu ideia originalekin, zerotik hasten gara sortzen, gudan kezka, grina, kuriositatea, egonezina, poza, nahiz lotsa eragin duen txispa batetik.

Ez da gauza berria gure plataforman, egiten dugun horri ematen dioguna besteko garrantzia ematea egite horren moduari. Atzerrian Lurra Garratz antzezlanean, aspaldi honetan diskurtsoan eta ekimen puntualetako jardunean darabilgun eginbidea gure ekintzekin berretsi nahi izan dugu eta ez da kasualitatea lan taldearen erdia baino gehiago emakumezkoa izatea, eta beraien postuak erabakigarriak.

Apustu horren eskutik, derrigor berrikuntza artistikoak ekartzen ditugu, espazio eszeniko berri edo berritzaileak okupatu nahi ditugu, dramaturgia berriak saiatu, gorputzak agertu, lengoaiak nahastu, disziplina ez ohikoak lehen lerrora ekarri... Gure esperientzia, begirada eta ahots berriko zuzendaritza artistikoaren zerbitzura jarri.

Ibilian goaz, balio oinarritzko berdinei garaiari egokitutako galdera eta erantzunak emanaz. Hortan datza gure konpromisoak, eta hori da euskal arte eszenikoei egin diezaiekegun ekarpen interesgarriena.

Aurkeztera goazen antzezlan berri honi, Atzerrian Lurra Garratzi esperientziaren heldutasunez eta abentura berrien ilusioz heltzen diogu.

ABIAPUNTUAK / BULKADAK

Amancay Gaztañaga. Zuzendaria.

“Atzerrian Lurra Garratz” proiektua esku artera iritsi zitzaidanean, esklabutza modernoaren inguruko hausnarketa pertsonal batean nengoen murgilduta. Sistema kapitalistak, bere funtzionamendua jarraitu ahal izateko, emakumeen menpekotasuna beharrezkoa duen horrekin obsesionatuta nenbilen. Esklabutza debekatzen duen gizarte batean, gu esklabu... Iñigok ekarri zidan “Atzerrianen” oihartzuna. Laurak bazuela istorio bat kontatzeko, esan zidan. Laura migratzailea zela, kolonbiarra, aktore profesionala, “Grotowski-ren teknika dominatzen du” esan zidan. “Laura, Laura Penagos”, “Ez dakit nor den” esan nion.

Sareak eraikitzen ari gara Eukal Herriko emakume sortzaileak, sareak, egiten dugunak bidea izan dezan... hortan gabiltza.... eta ibiltze horretan, nik ez nekien nor zen Laura. Nola ez genuen Laura bezalako sortzaile bat kontutan izan? Nola ez jabetu bera hor zegoela? Laurak hamaika urte daramatza Euskal Herrian. Laura migratzailea da, kolonbiarra da nahiz eta euskaraz jakin, Laura ez da gutako bat. Zaplasteko latza bere burua progretzat duen feminista batentzat.

Ze eskubide dut/dugu, esklabutzari buruz hitz egiteko? Kolonizatzaileak izan garenaren pertzeptziorik ez badugu? “Atzerrianek” berrogei urteko emakume kolonbiar bati buruz hitz egiten du, Euskal Herrian tokirik topatzen ez duen emakume sortzaile baten istorioa da, bere herritik esku hutsik ateratzera behartua izan dena. Haratago, “Atzerrian”, sentimendu kolektibo baten jabe da. Erreferenteak sortzeko behar bati buruzko hausnarketara garamatza. Euskal sorkuntzak emakumezko sortzaileen erreferenteak behar ditu eta larriagoa dena, emakumezko migratzaileen erreferente beharrean dago. Niri “Atzerrianek” eta Aurora Moraren pertsonaiak, begiak ireki dizkit. Prozesu honek auto-kritika egitera eta kargu hartzera derrigortu nau. Herri bezala, sortu ditzagun amaraun erraldoiak, guztiok, identifikatuta sentituko garen, sare emankorrak.

ABIAPUNTUAK / BULKADAK

Ander Lipus.

Antzerkiak bizitzatik edan behar du. Exilioak, deserriak, migratzaileen gaiak beti interesatu izan nau. "Etxekoak" lana da horren adierazgarri. "Etxekoak" lanean guk euskaldunok atzerritarrekiko dugun begirada jorratzen genuen. "Atzerrian lurra garratz" lanean, atzerritarrek gurekiko duten begirada jorratuko dugu.

Laura Penagos ezagutu nuen eta bere bizipenak kontatu zizkidan. Bere herriaz mintzatu zen. Kolonbia. Zergatik ez eman hitza bere azalean atzerria pairatzen duenari? Zergatik ez lekua utzi? Bere sentimenduak, bere ametsak, bere beldurrak... azkenean, bere istorioa taula gainean jartzea erabaki dugu. Errealitatetik abiatuta fikziozko antzerkia egitera iritsi arte.

Oholtza gainera dakartzagu galderak. Gure herrian bizi den atzerritarrak zer du esateko? Ez ote da interesgarriago migranteei, eurei, ahotsa ematea? Euskal kulturaren olinpoan ez dute lekurik atzerritar euskaldunek? Galderak egiten jarraitzen dugu, erantzunak guztion artean aurkitzeko asmoz. Hartu eta edan dezagun bizitzatik.

ABIAPUNTUAK / BULKADAK

Laura Penagos.

Kolonbiarra naiz eta herri txiki batean jaio nintzen. Bogotako Teatro Libre eskolan ikasi nuen antzerkigintza. Antzezlea naiz. Orain dela hamaika urte iritsi nintzen hona. Zalantzarik gabe, esan ahal dut hemen ikasketa aberasgarria izan dudala. Iritsi nintzenetik, nortasunari eta hizkuntzari buruzko hausnarketa sakonak Kolonbiako egoera ulertzen lagundu dit, hemen bertako izaerari eusteko borroka bizirik iraun baitu. Bide honetan ulertu nuen nola desagerrarazi zituen kolonialismoak gure hizkuntza eta kultura eta nola hutsune honek sortu zituen gure herrian bizi izan diren gerra, miseria eta gure arbasoen ondarearen galera. Nola hitz egin norberari dagokionaz? Nola besteenaz? Nora begiratu behar dugu lapurtu digutena berreraikitzeko? Garrantzitsua zen niretzako, euskal arte sorkuntzan bere lekua bilatzen ari den emakume kolonbiar, etorkin eta antzezle gisa, galdera hauei erantzuna aurkitzea eta bulkada hau pertsonala ez ezik kolektibo zela jabetu nintzen.

SINOPSISIA /

BI HITZ

Aurora Mora bere instalazio artistikoari azken ikutuak ematen ari da, bere bizitza betirako aldatuko duen deia jasotzen duenean.

Posible al da gurea ez den lur batean sustraitzea? Posible, familia eta aberriaren zama gainean dugula, hegaldi propioari ekitea?

Eta, gau batean, gure bizitzaren norabidea erabaki beharko bagenu?


Esaera zaharrak dioen bezala:
"Atzerrian lurra garratz, hoña ibini egik baratz".

Teaserra:


<https://www.youtube.com/watch?v=rQTDngUeZb8&t=41s>



ARGAZKIAK / BEGIRADAK



ARGAZKIAK / BEGIRADAK



ARGAZKIAK / BEGIRADAK



TRAMA /

GAUA / BIDEA

Ekintza gau batean gertatzen da. Auroraren gelan.

Aurora Tabakaleran aurkeztu behar duen performantzea entsaiatzen ari da. Bapatean dei bat jasotzen du. Ahizpa da, Kolonbiatik: Ama, ustekabea hil da. Goizean, Bogotara itzultzeko hegaldia hartu behar du.

Hortik aurrera, ikuslea, Auroraren doluaren barne bidaian murgilduko da. Doluak berarekin dakar: amorrua, maitasuna, oihua, mina, negarra, sexua, frustrazioa, barrea...

Minak dakarren dantza horretan pertsonai ezberdinek habitatuko dute bere gela. Kepa, bere mutil laguna; Eusebio, ama, ahizpa, amona... Errealitatearen eta ametsen munduak nahastuko dira, erritual magikoan.

PERTSONAIAK:

Aurora Mora:

Berrogei urteko performer kolonbiarra. Lau urte daramatza Euskal Herrian bizitzen. Bakarrik bizi da ezleku bateko gela txiki batean. Tabakaleran bere instalazioa aurkezteko azken entseguekin dabil.

Kepa:

Auroraren mutil-lagun euskalduna. Lagunek Tximas deitzen diote. Euskaldun petoa. Bere lagun Peru eta Mikelekin Beti Alai eguzki panelen enpresa txiki bat kudeatzen du. Kirolaria eta basikoa. Ogia baino basikoagoa.

Esperanza:

Auroraren ahizpa. Txokoko hiriburuan bizi da, Kolonbian. Pragmatikoa eta zentzuduna. Famili tradizional baten parte. Aurora faltan botatzen du, egunero.

TRAMA /

GAUA / BIDEA

Ama:

Bere sarean mantendu nahi duen armiarma. Ama/aberria. Ama/ama. Ama/kolonbia.

Nayeli:

Auroraren amona. Muiska komunitateko indigena. Txibtxa hizkuntza hitz egiten zuen. Bere herria utzi eta ez zen inoiz gehiago itzuli.

Eusebio:

Keparen aita. Alzheimerra du.

Mamuak:

Bere instalazioan agertzen diren atzerriratu Kolonbiarrak: Suarez nasa indigena; Luis, Suarezzen semea; Jenifer, afrodeszendentea; Virginia, prostituta.

GAI ARDATZAK / AURORAREN GELA

Desarraigo

*Sentirme
devorada.*

*Tirada sobre el pasto
del campo ajeno.*

Negada.

Laura Penagos

Emakumea sortzaile

Aurora, gure protagonista, performerra da. 40 urte ditu, ez du seme-alabarik eta indigena da.

Lan honekin emakumearen papera aztertu nahi dugu. Nola bizi da emakume sortzailea Euskal Herrian? Nola bizi da zuria ez den emakume sortzailea? Ba ote du lekurik?

Migranteak

Lau urte dira Aurora Kolonbiatik Euskal Herrira etorri dela. Euskaraz hitz egiten ikasi du. Bere tokia bilatzen saiatu da.

Nola sentitzen dira migranteak? Nola bizi dira hemen? Sustraiak bota ditzakegu gurea ez den lur batean? Zer da lurra, "gurea" izatea? Euskaldunon artean integratzea erraza al da kanpotik datorrenarentzat? Zertan egiten du lan migrante batek? Zertan egiten du lan emakume migrante batek?

GAI ARDATZAK /

AURORAREN GELA

Zaintza

Keparen aitak alzheimerra du. Kepak ezin du bere aita zaindu. Nork zainduko du Keparen aita? Aurorak ez du lan finkorik. Emakumea da, migrantea.

Nork zaintzen ditu edo nork zaindu behar ditu gure herriko aiton-amonak? Duina da, ia musutruk, lan egingo duen migrante bat gure familiarrak zaintzen edukitzea hogeitalau orduz? Ez ote gara bere egoeraz aprobetxatzen? Nolakoak dira gure zaharren eta migranteen arteko harreman emozionalak?

Herria eta deserria

Aurora orkidea bat bezala bizi da, sustraitu gabe.

Kolonbia eta Euskal Herria. Euskaldunek ere badakite zer den atzerria. Badakite zer den herrimina. Beraz, badugu zerbait denon artean. Batzuetan euskaldunak bere herrian arrotz sentitzen gara. Arrotz sentitzen gara eraiki dugun mundu honetan. Zergatik?

Indigenak eta herri zapalduak. Hizkuntza gutxituak

Nayeli, Auroraren amona, indigena muiska zen. Basa, emakume ez-ohiko bat. Bere lurretik atera eta beste lur batean indarrez ezarria.

Kolonizazioak beste gaitz bat ekarri zuen, ekarri du. Hizkuntza hegemonikoek suntsitu dituzte beste kultura eta hizkuntza gutxituak. Muiska herriarena da horietako bat. Txibtxa hizkuntza galduta dago jada, hizkuntza hila da. Euskararekin ere ez ote da gauza bera gertatzen ari?

Existitzen ez diren herriez ari gara. Existitzen ez diren mapak. Desagerrarazi nahi dituzten eta desagertu diren kultura eta identitateez. Globalizazioaren atzaparretan erortzen diren herriez, komunitatez, gizajendeaz ari gara. Nora ote goaz?

GAI ARDATZAK /

AURORAREN GELA

Kolonizazioa eta arrazakeria

Aurorari eskolan esaldi hau errepika arazten zioten: Espainolak deskubritu gintuzten eta hiru barkutan etorri ziren; Niña, Pinta eta Santa Maria.

1492an kolonizatzaileak iritsi baino lehen, 90 milioi biztanle ziren Latinoamerikan. Uste da XVI. mendean espainolek eta portugaldarrek gas-kamerarik eta lehergailurik gabe ia 85 milioi indigena desagerraraztea lortu zutela. Gizateriaren historiako sarraski handiena izan zela esaten dute.

Jatorrizko herriak esklabo egin zituzten; torturatu, lurraz eta bere kulturaz gabetu eta ebanjelizatu egin zituzten.

Zer daukate gaurko euskaldunek honetatik ikasteko? Zein da gure erantzukizuna? Ez ote dugu barnean gordetzen dugun kolonizatzailea kanpora atera? Elkarlanean erantzun beharreko galderak dira hauek. Gure ondarea begiratu beharko genuke, etorkizuna "beltza" izango ez bada.

Gatazka eta biolentzia. Kolonbia gaur egun.

Aurorak ez du bere ama aberria maite. Eta Aurorak bere ama aberria maite du.

Azken 54 urteetan 220.000 lagunek galdu dute bizia Kolonbian gatazka armatuaren ondorioz.

Kolonbiako egoera bortitza ekarri nahiko genuke Euskal Herriko antzeztokietara. Prentsaren eta gaur egungo hedabide guztien informazio partzialetatik harago, Auroraren esperientzia kontatu nahi dugu. ... gatazka batek dakartzan mina eta zorigaitza. *No hubo tiempo para la tristeza.*

DRAMATURGIA / HARIAK / AMARAUNA

Era kolektiboan sortu dugu hasieratik antzezlanaren dramaturgia.

Laura Penagos-en munduan murgildu ginen eta hainbat dokumental, musika, liburu, iritzi artikulua partekatu genituen.

Aktoreekin eginiko inprobisaketak hartu abiapuntu gisa eta bertatik sortu genuen lehen dramaturgia. Ander Lipus eta Laura Penagos eszenan eta Amancay Gaztañaga zuzendari lanetan, barruan gertatzen zena jasotzen.

Atzerrian lurra garratzen amarauna sortzen joateko, beharrezkoak izan dira bertan parte hartuko duten beste sortzaileen begiradak.

Barbara Rassok, erritualera eta surrealismora eramaten gaitu bere jantziekin eta espazioaren ikuspuntuarekin. Ibon RG-ren barne munduak guztiz beteko du eszena. "Barrutik-kanpora" datorren espazio sonoro bat sortuz. Ainhoa Resanoren begirada zorrotzak lana hasieratik jarraituko du. Entseguetan egin dugun guztia jaso eta argazkien bidez, bidaia guzti hau dokumentatuta utziz. Arantza Floresen argiztapenak istorio honen argi-ilunak indartuko ditu. Eta Miren Amurizaren konplizitateak idazkerari beste aberastasun bat ekarriko dio.

Hortaz aparte, Artedramako lasone Parada, Irantzu Azpeitia eta Mikel Unamunzaga, antzokietako profesionalekin zein publikoarekin ezinbesteko zubi izango dira. Ekoizpenaren, banaketaren eta komunikazioaren alorrean mimo handia jarritz.

Dramaturgia guzti hauen amarauna harilkatzen Amancay Gaztañaga egongo da.

"Atzerrian lurra garratz, hoña ibini egik baratz".

ARGAZKIAK II / BEGIRADAK II



ARGAZKIAK II / BEGIRADAK II



LAN TALDEA / ARNASAK

Zuzendaria//
Amancay Gaztañaga

Aktoreak//
Ander Lipus
Laura Penagos

Idazkera Laguntzailea//
Miren Amuriza

Argiztapena// Arantza Flores
Teknika// Mikel Unamunzaga
Jantziak// Barbara Rasso
Musika// Ibon Rg
Eszenografia eraikuntza// Atx Teatroa
Argazkia// Ainhoa Resano

Ekoizpena// Iasone Parada
Banaketa// Irantzu Azpeitia



EGUTEGIA /

PAUSU BAKOITZA

Sorkuntza egonaldiak//

2019ko abenduaren 2tik 6ra **GERNIKA-LUMO** (5 egun)

2020ko martxoaren 2tik 7ra **HENDAIA** (6 egun)

2020ko irailaren 14tik 18ra (5 egun)

2020ko azaroaren 16tik 20ra (5 egun)

2021eko urtarrilaren 17tik otsailaren 4ra **LUHUSO** (19 egun)

Emanaldiak//

Otsailak 12 **Oñati**

Otsailak 19 **Andoain**

Otsailak 20 **Markina-Xemein**

Otsailak 21 **Errearteria**

Otsailak 26-27-28 **Donostia**

Martxoak 2-3 **Bilbo/ Arriaga**

Martxoak 4 **Eibar**

Martxoak 5 **Zumaia**

Martxoak 6 **Gernika-Lumo**

Martxoak 7 **Arrasate**

Martxoak 9 **Eibar**

Martxoak 13 **Berriz**

Martxoak 14 **Durango**

Martxoak 19 **Zarautz**

Martxoak 23 **Hernani**

Martxoak 26 **Elorrio**

Martxoak 27 **Barakaldo**

Apirilak 2 **Bergara**

Apirilak 10 **Aulesti**

Apirilak 16 **Zornotza**

Apirilak 23 **Sopela**

Apirilak 25 **Villabona**

Maiatzak 2 **Lezo**

Maiatzak 5 **Iruñea**

Maiatzak 7 **Tolosa**

Maiatzak 16 **Pasaia**

Maiatzak 23 **Erandio**

Ekainak 6 **Hondarribia**

EGUTEGIA /

PAUSU BAKOITZA

Irailak 25 **Aulesti** Frontoia / Aulestiko Topaketak

Urriak 1 **Sopela** Kurtzio K.E.

Urriak 23 **Getxo** Muxikebarri

Urriak 24 **Aretxabaleta** Kultur Etxea

Azaroak 5 **Galdakao** Kultur Etxea

Azaroak 11 **Santurtzi** Serantes K.A.

Azaroak 14 **Oiartzun** Pleno Aretoa

Azaroak 17 **Gasteiz** Principal Antzokia

Azaroak 21 **Villabona** Gurea Antzokia

Azaroak 28 **Berriozar** Kultur Etxea

Abenduak 10 **Donapaleu** Aretoa

Abenduak 12 **Luhuso** Harri Xuri

Abenduak 14 **Hazparne** Aretoa

Abenduak 18 **Oion** Zine Aretoa

KONTAKTUA / HARREMANAK

ArteDrama

Irantzu Azpeitia
(0034) 615 779 511
info@artedrama.com

